



**Mancomunidad**  
Comarca de Pamplona  
Iruñerriko  
Mankomunitatea

.....  
**Iruñerriko Mankomunitateko**  
**Batzar Nagusiaren erabakia / Taxi**  
**zerbitzuaren tarifak**  
.....

**2015-2016-2017**

## **179/2013 EBAZPENA, ekainaren 25ekoa, Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusiak emana, Baterako Taxi Zerbitzurako Iruñerriko Eremuko tarifen aldaketa onesten duena 2013. urterako.**

Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legearen 40.1 artikulua ezartzen duenez, baterako zerbitzurako eremu bakoitzeko udalei edo toki entitate eskudunari dagokie hiriko taxi zerbitzuei aplikatu beharreko tarifak onestea. Onespen horretarako beharrezkoa izanen da prezioak indarreko legeriaren arabera baimendutako prezioen araubidearen mende egotea. Onespenaren aurretik, betiere, entzunaldia eman beharko zaie taxien sektorea ordezkatzeko duten lanbide elkarteei eta tokian-tokian erroturik dauden kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteei.

Foru lege horren xedapen gehigarri bakarrak ezartzen du zer udalerrik osatzen duten Baterako Taxi Zerbitzurako Iruñerriko Eremua eta, orobat, ezartzen du Iruñerriko Mankomunitatea izanen dela horren gaineko toki entitate eskuduna.

Aurrekoari jarraikiz, Iruñerriko Mankomunitateak Batzar Nagusiaren erabakia aurkeztu zuen, Baterako Taxi Zerbitzurako Iruñerriko Eremuko 2013ko tarifei buruzkoa hain zuzen, eta Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusiak 353/2012 Ebazpenaren bidez onetsi zituen.

Iruñerriko Mankomunitateko Batzarrak, 2012ko abenduaren 20an egindako bilkuran, zerbitzua arautzen duen ordenantza aldatzeko proposamena onetsi zuen, egitura berria aplikatzeko behar diren aspektuak eta egitura berrirako tarifen proposamen berria biltzen zituena.

2013ko martxoaren 4an, ordenantza jendaurrean egoteko hogeita hamar egun balioduneko epea bukatu, ez da hari buruzko alegaziorik aurkeztu. Beraz, ordenantza behin betikoz onetsi zen, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara haren testua (2013ko 52. NAO, martxoaren 15ekoa).

Halaber, kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteekin eta taxilarien lanbide elkarteekin 2013ko ekainaren 24an bildu eta haien iritzia entzun da, eta Taxiari buruzko Foru Legearen 40.1 artikuluan eta Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Legea onesten duen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren 39.d) artikuluan ezarritakoa bete.

Ikusirik Turismoa eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzuak emandako txostena.

Horrenbestez, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen uztailaren 25eko 67/2012 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

EBATZI DUT:

1.–Baterako Taxi Zerbitzurako Iruñerriko Eremuan honako tarifa hauek onestea 2013. urterako:

a) 1. tarifa: Baterako Zerbitzurako Iruñerriko A eremuan, lanegunetan, egunaz (06:00etatik 22:00ak arte) aplikatzekoa den tarifa osatzen duten kontzeptuen balioak.

–Egindako kilometroko: 0,94 euro.

–Itxaron beharreko ordu bakoitzeko: 19,01 euro.

b) 2. tarifa: Baterako Zerbitzurako Iruñerriko A eremuan asteburuetan, jaiegunetan eta lanegunetako gauetan (22:00etatik 06:00ak arte) aplikatzekoa den tarifa osatzen duten kontzeptuen balioak:

–Egindako kilometroko: 1,11 euro.

–Itxaron beharreko ordu bakoitzeko: 22,72 euro.

c) 3. tarifa: Baterako Zerbitzurako Iruñerriko B eremuan, lanegunetan, egunaz (06:00etatik 22:00ak arte) aplikatzekoa den tarifa osatzen duten kontzeptuen balioak.

–Egindako kilometroko: 1,18 euro.

–Itxaron beharreko ordu bakoitzeko: 16,32 euro.

d) 4. tarifa: Baterako Zerbitzurako Iruñerriko B eremuan asteburuetan, jaiegunetan eta lanegunetako gauetan (22:00etatik 06:00ak arte) aplikatzekoa den tarifa osatzen duten kontzeptuen balioak:

–Egindako kilometroko: 1,48 euro.

–Itxaron beharreko ordu bakoitzeko: 20,40 euro.

e) Bandera jaistea. Honela aplikatuko da:

–Bandera jaistea, lanegunetan, egunaz, 06:00etatik 22:00ak arte: 2,00 euro.

–Bandera jaistea, lanegunetako gauetan (22:00etatik 06:00ak arte), asteburuetan eta jaiegunetan (08:00etatik 24:00ak arte): 3,00 euro.

–Bandera jaistea, asteburuetan eta jaiegunetan 00:00etatik 08:00ak arte: 4,20 euro.

f) Gutxieneko kobrantza. Hauxe aplikatuko da:

–Gutxieneko kobrantza, lanegunetan, egunaz, 06:00etatik 22:00ak arte: 4,35 euro.

–Gutxieneko kobrantza, lanegunetako gauetan (22:00etatik 06:00ak arte), asteburuetan eta jaiegunetan: 5,77 euro.

g) 2013ko osagarriak:

–Aireportua: Abiapuntua edo helmuga Noaingo aireportua duten zerbitzuak: 2,40 euro.

–Tren geltokia, edo autobus geltokiaren barrenaldea: Abiapuntua edo helmuga tren geltokia edo Iruñeko autobus geltokiaren barrenaldea duten zerbitzuak: 1,00 euro.

–Telefono bidezko hitzartzea (T1): Telefono bidez edo antzeko beste sistema teknologiko baten bidez lanegunetan, egunaz (06:00etatik 22:00ak arte) hitzartutako zerbitzuak: 1,00 euro.

–Telefono bidezko hitzartzea (T2): Telefono bidez edo antzeko beste sistema teknologiko baten bidez asteburuetan, jaiegunetan eta lanegunetako gauetan (22:00etatik 06:00ak arte) hitzartutako zerbitzuak: 1,70 euro.

2.–2013ko egutegian jaiegun zer egun diren ezartzerakoan, Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren zuzendari nagusiak maiatzaren 30ean emandako 453/2012 Ebazpena hartu da aintzat (Nafarroako

Foru Komunitatearen esparruan ordaindu bai baina errekuperatu behar ez diren 2013ko jaiegunen egutegi ofiziala ezartzen duen ebazpena; 2012ko 113. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, ekainaren 14koa).

Egun horiez gainera, jaieguntzat joko dira Sanferminetako egunak, uztailaren 6tik 14ra bitarte, bi horiek barne.

3.–Tarifa horietan sartua da balio erantsiaren gaineko zerga.

4.–Tarifa horiek ibilgailuaren barrenean, erabiltzaileak aise ikusteko moduko toki batean, jarri beharko dira, Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legearen 26.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

5.–Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko dute indarra tarifek.

6.–Ebazpen hau Turismoa eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzura eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuaren Idazkaritza Tekniko Nagusira igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan.

7.–Ebazpen hau Nafarroan dauden taxilarien lanbide elkarteei eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteei jakinaraztea, eta ohartaraztea ebazpenak ez duela administrazio bidea amaitzen eta ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahal dutela, Turismoko, Merkataritzako eta Erakunde Harremanetako kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera.

8.–Ebazpen hau Iruñerriko Mankomunitateari jakinaraztea, eta aditzera ematea horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzen ahal dela, eskumena duen ordena juridikzionalari zuzendua, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, alde batera utzi gabe Nafarroako Gobernuan alde aurreko errekerimendua egin ahal izatea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epean.

9.–Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, orok jakin dezan.

Iruñean, 2013ko ekainaren 25ean.–Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusia, Carlos Erce Eguaras.